



MENDIGOIZALEAK.

(Foto y texto de «PAKOL»)

MENDIGOIZALEAK

«Goazen mendirik mendi, euskotar gazteak»
Abesten ikasi gendun gaztetxoak giñanean;
Abesten jarraitzen degu zaartzen ari geranean:
«Goazen aldatzaz gora, mendigoizaleak».

Artilezko galtzerdi txuriak amonak egiñak
Eta azpi iltzedun oñetako latzak;
Jarri gure aurrean baso ta aldatzak!
Mendi guziak ziran guretzat berdiñak.

Izarraitz, Aralar, Anboto edo Gorbea;
Añamendi, Entzia, Andia edo Aloña.
Ainbat gallurretan jarri degu oña;
Mendi bata ederra bazan, bestea ohea.

Eman digu gogoz eguzkiak kokotean.
Ipar aize goxoari bularrak zabalduaz
Iturri garbietan gure egarriak asetuz
Ura zan ederki egon pagadi barrenean!

Baita ere laño artean bideak galdu;
Baso batetik atera ta bestean sartu
Ezkerrera jo bear eta eskubira artu.
Urrena berriz, ekaitzak laizterka agindu.

Eta zer ojola elur maluten laztanok?
Arkaitz batetik bestera gogor eta odoltsu
Triskaka, abeslari ta beti alaitsu.
Oiek dira, mendirik mendi dabiltzanak.

Zoaste bada mendiruntz, gazteok.
Artu sorbaldan zorroak eta eskuan makillak
Esanaz laguneri anaikor: Goazen mutillak
Mendia lako tokirik guretzat etzeok.

Zoaste abesti arek esaten duan lez:
«Aize osasuntzuaz bizitza indartzera
Ta aberri guziari agur egitera».
Mendia ta euskera... ez utzi j ez!

MONTAÑEROS

«Vamos de monte en monte, jóvenes vascos»— Aprendimos a cantar cuando jovencitos—
Y cantando seguimos al envejecer— «Vamos cuesta arriba, montañeros».
Blancas medias de lana que abuela confeccionó— Y áspero calzado de claveteada suela—
Pongan ante nosotros bosques y pendientes!—Todas las montañas fueron para nosotros igual.
Izarraitz, Aralar, Anboto o Gorbea— Pirineos, Entzia, Andia o Aloña—
Tantas cimas hemos hollado!— Si un monte hermoso era, el otro más.
De ganas nos ha dado el sol en el cogote— Abriendo nuestros pechos al suave aire norte—
Saciando nuestra sed en los limpidos manantiales— Qué bien se estaba en el fondo del hayedo!
También en la niebla perdimos el camino— En saliendo de un bosque nos internamos en otro—
Debiendo tomar por la izquierda, por la derecha fuimos— Otras veces, la tormenta nos ordenó correr.
Y qué importan los besos de los copos de nieve?— De una peña a la otra, fuertes y pletóricos—
Saltando, cantando y siempre alegres— Esos son los que de monte en monte caminan.
Id, pues, jóvenes, hacia la montaña— Tomad la mochila a la espalda y en la mano el bastón— Invitando
fraternales a los compañeros: Vamos muchachos— Lugar como la montaña para nosotros no hay.
Id, como aquel cantar dice— «A fortalecer nuestra vida con el aire sano—
Ya a saludar a todo el País»— La montaña y el euskera... no abandonéis ¡no!